



EBAZPENA, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan oposizio-lehiaketa bidez sartzeko eta horra iristeko, oposizio-faseko probak egiteko lekuak eta datak eta epaimahaien egoitzak jakinarazten duena (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitu ziren).

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez (2025eko martxoaren 6ko EHAA), hautaketa-prozeduretarako deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan oposizio-lehiaketa bidez sartzeko eta horra iristeko.

Aipatutako Aginduaren 6.2. oinarrian xedatutakoaren arabera, oposizio-fasearen proben hasiera Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez zehaztuko da, eta inola ere ez 2025eko iraila baino lehen hasiko da.

Ondoren, proba idatziak egiteko eguna, ordua eta pabiloia zehaztu dira, bai eta hautaketa-prozedura horiekin zerikusia duten gainerako gaiak ere.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oposizio-faseko proba IDATZIAK egiteko lekuak eta datak.

1.– BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

1.1.– SARTZEKO PROZEDURA (txanda irekia eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txanda):

A) Proba praktikoa.

Bilbao Exhibition Centre (BEC) Barakaldon (Bizkaia) egingo da, 5. pabiloian (*).

Eguna: irailak 20

Ordua: 09:00etan.

Kontsultatu Epaimahai zbk. / pabiloi barneko gunea, espezialitateka, I. eranskinean (**).

B) Gai bat idatziz garatu.

Bilbao Exhibition Centre (BEC) Barakaldon (Bizkaia) egingo da, 5. pabiloian (*).

Eguna: irailak 20

Ordua: 12:30etan.

Kontsultatu Epaimahai zbk. / pabiloi barneko gunea, espezialitateka, I. eranskinean (**).

1.2.– BESTE KIDEGO BATERO IRISTEKO PROZEDURA:

A) Proba praktikoa.

Bilbao Exhibition Centre (BEC) Barakaldon (Bizkaia) egingo da, 5. pabiloian (*).

Eguna: irailak 20

Ordua: 09:00etan.

Kontsultatu Epaimahai zbk. / pabiloi barneko gunea, espezialitateka, I. eranskinean (**).



* Gomendatzen da 5. pabiloira BEC-eko hegoaldeko sarreratik sartzea.

Pabiloira sartzeko atea irekiko da: 8:15ean (9:00etako proban) eta 12:00etan (12:30eko proban).

2.– BEC-en probetara sartzeko akreditazioa: BEC-eko azterketa-egunean, izangai bakoitzak QR kode bat duen akreditazioarekin joan beharko du (proba bakoitzerako pabiloira sartzeko kontrola egiteko), bai eta Epaimahai zbk. / pabiloi barneko gunea ere. Akreditazio hori 2025eko irailaren lehen hamabostaldian bidaliko da, whatsapp bidez, izangaien telefono mugikorretara (eskabidean adierazitakoak). QR kodearen egiaztapena mugikorrean bertan erakutsi ahal izango da, edo paperean inprimatuta eraman.

Whatsappa prozesuan jarraitzen duten izangaiei bidaliko zaie, programazio didaktikoa ez entregatzeagatik baztertutako izangaien zerrenda argitaratu ondoren.

Bigarrena.– Oposizio-faseko AHOZKO proba egiteko lekuak eta datak LEHIAKETA-OPOSIZIOAN (txanda irekia, desgaitasuna dutenentzako erreserba-txanda eta goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera sartzeko prozedura).

Proba idatziak egin ondoren egingo da, epaimahaia izangaiari zitazioa egin ondoren, epaimahaien egoitzetan (ebazpen honen II. eranskina).

Hirugarrena.– Ahozko probarako zitazioak:

Epaimahaiak ahozko probarako izangaien zitazioa iragarriko dute, bai eta horiekin lotuta beharrezkotzat jotzen dituzten gai guztiak ere, honako hauetan:

- egoitzetako Iragarki-taulak (Ebazpen honen II. eranskinean adierazi dira).
- Web-orrian dagokion epaimahaiaren "Iragarki-taula"-n (informazio-ondorioetarako), eta hemen kontsultatu ahal izango da:

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2025. Bigarren Hezkuntza» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) – «Epaimahaiak» – izangaiari dagokion epaimahaiaren zenbakia adierazi – «Iragarki-taula».

Behin epaimahaien aurrean jarduketak hasita, izangaiantzako hurrengo deialdiak adierazitako leku berberetan, kasuaren arabera, iragarri beharko dira, hasi baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez.

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN

I. ERANSKINA – Epaimahai zbk. / pabiloi barneko gunearen banaketa, espezialitateka

- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoa.

Espezialitatea	Epaimahai zbk. / pabiloi barneko gunea (**) Ohiko lehiaketa-oposizioa
Ingelesa	A001
Euskara eta literatura	A003
Geografia eta historia	A005
Musika	A007
Filosofía	A009
Gaztelania eta literatura	A010
Fisika eta kimika	A011
Ekonomia	A012
Matematika	A013
Biologia eta geologia	A017
Hezkuntza-orientazioa	A018
Gorputz Hezkuntza	A022
Marrazketa	A015
Informatika	A014
Teknologia	A024
Laneko prestakuntza eta orientabidea	A020
Enpresen administrazioa	A025
Administrazio-Kudeaketako prozesuak	A031
Merkataritza-prozesuak	A032
Instalazio elektroteknikoak	A033
Ekipo elektronikoak	A034
Informatika-sistemak eta -aplikazioak	A035
Fabrikazio mekanikoaren antolamendua eta proiektuak	A027
Energía-sistemen antolamendua eta proiektuak	A028
Sistema elektroteknikoak eta automatikoak	A029
Analisi eta kimika industrial	A030
Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa	A026

II. ERANSKINA – Epaimahaien egoitzak

ARABA	
EPAIMAHAIAREN EGOITZA	ESPEZIALITATEA
IES SALBURUA BHI Alba Kalea, 2. 01006 Vitoria-Gasteiz - Araba	EUSKARA ETA LITERATURA
	GAZTELANIA ETA LITERATURA
	TEKNOLOGIA
	MARRAZKETA
	MATEMATIKA
	FISIKA ETA KIMIKA
BERRITZEGUNE A01 Gasteiz Hiribidea, 93. 01009 Vitoria-Gasteiz – Araba	INGELESA
	GORPUTZ HEZKUNTZA

BIZKAIA	
EPAIMAHAIAREN EGOITZA	ESPEZIALITATEA
IES TXURDINAGA BEHEKOA BHI Gabriel Aresti Hiribidea, 8. 48004 Bilbo - Bizkaia	INFORMATIKA
	INFORMATIKA-SISTEMAK ETA -APLIKAZIOAK
	INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK
	EKIPO ELEKTRONIKOAK
	SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIKOAK
	ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO PROZESUAK
	ENPRESEN ADMINISTRAZIOA
	MERKATARITZA-ANTOLAKETA ETA -KUDEAKETA
	MERKATARITZA-PROZESUAK
	FABRIKAZIO MEKANIKOAREN ANTOLAMENDUA ETA PROIEKTUAK



GIPUZKOA	
EPAIMAHAIAREN EGOITZA	ESPEZIALITATEA
G03 BERRITZEGUNEA EIBAR J.A. Iturrioz, 5. 20600 Eibar - Gipuzkoa	ANALISI ETA KIMIKA INDUSTRIALA
	ENERGÍA-SISTEMEN ANTOLAMENDUA ETA PROIEKTUAK
	HEZKUNTZA-ORIENTAZIOA
	LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA
	FILOSOFIA
IES KOLDO MITXELENA BHI (ERRETERIA) Galtzaraborda Hiribidea, 43. 20100 Erretería – Gipuzkoa	BIOLOGÍA ETA GEOLOGIA
	GEOGRAFIA ETA HISTORIA
	EKONOMIA
	MUSIKA